



ARARTEKO ERAKUNDEA 2015. URTERAKO AURREKONTUAREN AURREPROIEKTUA

TXOSTENA

Hona hemen Ararteko erakundeak 2015. urterako prestatu duen aurrekontuaren aurreproiektua, Eusko Legebiltzarraren Araudi eta Gobernurako Batzordeak horren berri izan dezan eta, ondoren, bere onspena eman diezaion. Gastuak eta diru-sarrerak berdinduz, guztira **LAU MILIOI, BOSTEHUN ETA LAUROGEI MILA (4.580.000,00) EUROKOA** da.

Kopuru hori 2014ko aurrekontukoa bera da. Beraz, ez da gehikuntzarik egin. Izozteko irizpideak eragina izan du aurrekontuan, baita langile multzoan eta soldatetan ere.

Aurrekontuko gastuen kapituluak banan-banan deskribatzen hasi baino lehen, labur azaldu nahi ditugu aurrekontua prestatzeko orduan erabili ditugun irizpide nagusiak.

Aurrekontuan oso irizpide murriztaileak erabili behar izan dira, Arartekoaren borondatearekin zerikusirik ez dutenak. Horregatik, ezinbestean, Ararteko erakundeak bere langile multzoa bere horretan mantendu behar izan du bosgarren urtez jarraian, nahiz eta erakundearen lan-kopurua bikoiztu baino gehiago egin den, batez ere krisi sozioekonomiko larriaren ondorioengatik, izugarri eragin baitie familia askori. Arartekoko langileak ahalegin handia egin dute lan-kopuru ikaragarri horretaz behar bezala arduratzeko eta berori kudeatzeko. Horrez gain, Arartekoak Zerbitzuen eta Konpromisoen Kartan herritarrekin hartutako konpromisoak bete ditu. Bestalde, erakundeak eraginkortasunez parte hartu du zerbitzuen kalitatea hobetzeko, plan estrategikoa eratzeko eta prozesuak berriz definitzeko prozesuetan. Azkenik, nabarmentzekoa da Arartekoak berebiziko ahalegina egin duela bere baliabide eta tresna informatikoak optimizatu eta hobetzeko, baita barruko funtzionamendua ere.

Horri guztiari esker, eragingarritasuna eta produktibitatea nabarmen areagotu dira. Horrekin batera, Arartekoko langileen ardurari esker –askotan beren laneko betebeharren gaintik zeuden lan-kargak hartu baitituzte bere gain- zentzuz



kudeatu ahal izan da Arartekoaren lan kopurua. Haatik, egoera ekonomikoak eta aurrekontukoak horretarako bide ematen duenean, langile multzoa ugaritu beharko da, eta langileen soldatak bidezko neurrian igo, azken urteotan nabarmenki behera egin baitu langileen erosteko ahalmenak.

Aurten ere gogorazi behar dugu Arartekoak, legerian ezarritako eskubideak defendatu eta babesteko sortu zen Eusko Legebiltzarraren goi ordezkaria denez, lan proaktiboa egin beharra daukala eskubideen alde, kexak bideratu, aztertu eta ebazteaz harago. Bere jarduera-alorretako bat hauxe da: gizarteko premiak eta eskubideak bermatzeko sisteman dauden ahultasun egoerak antzematea, administrazio eskudunei gomendioak egin ahal izateko eta, azken batean, politika publikoak hobetzeko. Era askotako tresnak baliatzen ditu helburu hori lortzeko: txosten bereziak, gomendio orokorrak, hausnartzeko eta herritarrek parte hartzeko foroak eta gizarte-erakundeekiko bilerak. Jarduera horiek guztiek lan-kopuru eskerga sortzen dute. Eta ez dira hor bukatzen Arartekoak Legebiltzarraren goi mandatari gisa pertsonen eskubideak babesteko dituen eginkizun eta zereginak. Beste hauek ere erantsi behar zaizkie: GKE askok antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan parte hartzea; hainbat lurraldetako defentsa-erakundeekin lankidetzan eta elkarlanean aritzeko instantzietan esku hartzea; gure lana zabaltzea, informatzeko eta komunikatzeko zenbait tresna erabiliz; artikuluak eta erakunde-adierazpenak egitea giza eskubideak defendatzeko eta talde ahulak babesteko; hitzaldiak eta mintzaldiak ematea; giza eskubideak sustatzearen arloan hainbat ekimen kudeatzea, e.a.

Arartekoaren baitan eraturako Haur eta Nerabeentzako Bulegoak ere areagotu egin du bere jarduera, nerabeen Kontseiluaren kudeaketa gehitu baitio bere lan-agenda beteari, bitartekotza eta aholkularitza lanei.

2012. urtearen bukaera aldera, Arartekoarentzat ohore handia izan zen Rainbow Has proiektua koordinatzeko aukeratua izatea. Rainbow Has proiektua (Rights Through Alliances: Innovating and Networking Both Within Homes And Schools; "Eskubideak aliantzen bitartez: etxean eta eskolan berritzen eta sareak sortzen") Europako Batzordeko Justiziako Zuzendaritza Nagusiak bultzatu du. Horren bitartez, hezkuntzaren eremuan haur eta nerabeek sexu-aniztasunerako duten eskubidea aztertu eta hobetu nahi da. Rainbow Has proiektua 2013 eta 2014. urteetan egin da eta Europako 8 herrialdetako 13 erakundek hartu dute parte bertan, besteak beste, Milango Udalak, Middlesexeko (London) Unibertsitateak, Amsterdameko Udalak eta Familia Gay eta Lesbianen Europako Sareak. Proiektu hori oraintsu amaitu da Bruselan eta ospea eman dio erakunde honi.



Bigarren eta seigarren kapituluetako aurrekontu-kredituei dagokienez, beste ahalegin bat egingo da kreditu horiek igoerarik gabe mantentzeko, edo behar-beharrezko igoerekin, aurrezte eta herstura plan gogorrak zorrozki ezarriz.

- Erakundearen langile guztien soldatak bere horretan utziko dira eta 1. Kapitula – Langileen Lansariak %0,41 murriztuko da 2014koaren aldean.
- 2. Kapitula – Ondasun Arrunten Erosketa eta Zerbitzuak %0,78 gehituko da.
- 6. Kapitula – Egiazko inbertsioak %20,00 gehituko da.

A handwritten signature in blue ink, consisting of several loops and a final flourish.



GASTUEN EGOERA

1. KAPITULUA – LANGILEEN LANSARIAK

Kapitulu honetako kreditua guztira **HIRU MILIOI, HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMAR MILA (3.390.000,00) EUROKOA** da; beraz, %0,41 gutxitu da joan den urtekoaren aldean.

Kapitulu honetan, datorren ekitaldirako nabarmentzekoa da erakundearen langile multzoa eta beraien soldatak izoztuko direla, lehen adierazi dugunez.

Gainerakoan, Gizarte Segurantzari dagokion partida indarreko araudiko azken aldaketetara egokituta agertzen da aurrekontuan.

2. KAPITULUA – ONDASUN ARRUNTEN EROSKETA ETA ZERBITZUAK

Kapitulu honetako kreditua, guztira **MILIOI BAT, EHUN ETA HIRUROGEI MILA (1.160.000,00) EUROKOA** da.

Horrela, gastua %0,78 gehitu da 2014koaren aldean.

6. KAPITULUA – EGIAZKO INBERTSIOAK

Kapitulu honetako kreditua, denera, **HOGETA HAMAR MILA (30.000,00) EUROKOA** da. Hortaz, %20,00 gehitu da (5.000 euro gehiago) 2014koaren aldean.



SARREREN EGOERA

2013. urteko superabita 76.283,94 eurokoa izan zen. Superabit hori sarrera gisa gehituko da Ararteko erakundearen 2015eko aurrekontuan, 4. kapituluan –Transferentzia Arruntak–, 411.01.00 partidan –Aurreko urteetako superabita–.

Gure ustez, kapitalak ematen dituen korrituengatik 1.616,06 euroko ondare-sarrerak izango ditugu, aurrerakin itzulgarriak bihurtzean 2.000,00 euro jasotzea espero dugu eta beste argitalpen batzuen partidan, berriz, 100,00 euro. Hori kontuan izanik, sarreraren aurrekontua eta gastuena berdinduko bada, Eusko Legebiltzarrak honako kopuru hau transferitu behar du Ararteko erakundearen alde: **LAU MILIOI, BOSTEHUN MILA (4.500.000,00) EURO.**

Iñigo Lamarca Iturbe
Arartekoa

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 25a